

azpeitian zer?

udal aldizkaria

188. zenbakia




azpeitiko udala
denon artean

SUSTAPEN EKONOMIKOA ARDATZ

Udaleko bi alderdiek adostu dute
1,7 milio eta 12 lerroko Plan Integrala

TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailatza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zaborteia	943 15 18 75

BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Ekainak 5, 9, 16, 23 eta 30

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Ekainak 1, 8, 15, 20, 21, 26 eta 29

BERISTAIN

Urbitearte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Ekainak 2, 11, 17, 22, 27 eta 28

ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Ekainak 4, 6, 7, 12, 18 eta 25

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Ekainak 3, 10, 13, 14, 19 eta 24

ALE HONETAN ZER?

Likidazioa	3
Elkarlana.....	5
Sustapen ekonomikoko laguntzak	7

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala.
Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Maketazioa eta testuak:
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

AZPEITITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85 (ALKATETZA) TELEFONOAN.

AZPEITIA EZAGUTZEN




INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ, AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!



Euskal Herriko mundu tradizionalak bere neurri, marka, seinale eta sinboloak izan ditu, munduko beste kultura guztien antzera. Gizakiak beti izan du gauzei neurria jarri beharra, metroa ezarri aurretik ere. Metroa, kiloa eta antzerakoak ez ziren iritsi XIX. mendera arte; eta orain gutxi arte inork ez zeraman ordularirik. Gizakiak beti izan du neurrien beharra. Historiaurreko aztarnategietan, adibidez, ustez egutegiak diren aztarna batzuk agertu dira. Denbora neurtzeko nahi horretan, egipcioarrek eguzki ordularia erabiltzen zuten orain ia 3.000 urte; Euskal Herrian ere erabili izan dira duela gutxi arte (Azpeitiko egungo udaletxearen horma batean zegoen eguzki ordularia esaterako). Denbora soilik ez, beste gauza mordoa ere neurtu behar izaten zen. Hasieran ezaugarri antropometrikoak hartu zitue

LIKIDAZIOA



DIRU SARRERAK GUTXITU ARREN, PROIEKTU GUZTIEI HELDUKO DIO UDALAK

2019ko kontuak itxita, egoera ekonomiko ona du Azpeitiko Udalak.: "Covid-19aren ondorioz ezarritako alarma egoerak eragindako kalteak arintzeko garrantzitsua da datu hori. Herritarrek jasandako ondorioei aurre egiteko zerbitzuak eta laguntzak indartzeaz gain, aurtengorako aurreikusitako proiektuei ere eusteko aukera izango dugulako", dio Nagore Alkorta alkateak.

2019ko LIKIDAZIOA, DATUTAN

Behin betiko aurrekontua	23.795.519,53€
Zor bizia	%9,1
Exekuzio maila	%80,34
Diru zaintza gerakin brutoa	14.423.709,54€

2019ko kontuak itxita, Udala egoera ekonomiko onean dago. Udalaren egoera ekonomikoa-ren egoera ezagutzeko aproposak izan ohi dira urteko kontuen itxierako datu eta adierazleak.

Azpeitiko Udalak 23.795.519,53€ko behin betiko aurrekontua izan zuen iaz. Aurrekontuaren %80,34a izan zen exekuzio maila eta %9,1eko zor bizia du gaur egun Udalak. COVID-19ak sortutako alarma egoeraren ondorioei aurre egiteko "egoera ekonomiko ona eta sendoa" du Udalak Nagore Alkorta alkatearen hitzetan.

EGOERA EKONOMIKO ONA

Udalaren egoera ekonomikoaren beste datu esanguratsu bat zor bizia izan ohi da, eta Azpeitiko gaur egun %9,1 ekoka da: "Legeak erakunde publikoei ezartzen dizkion finantza betekizun guztiak betetzen dira; hau da, gastu araua, zor bizia eta *superhabit*-ari lotutako arauak betetzen ditugu. Beraz, egonkortasun eta iraunkortasun helburu guztiak.", zehaztu du. Legearen arabera, udalaren zorra ezin da izan aurreko urtean onartutako ohiko eskubideen %77a baino handiagoa; Azpeitiko %9,1ekoa da.

Diru zaintza gerakinari dagokionez, berriz, 14.423.709,54€ brutokoa da. Gerakin horren zati bat hainbat inbertsiori lotuta dago eta kreditu al-daketa bat ere egina da. Beraz, gas-

tu orokorretarako "erabilgarri" bederatziz milioi euro inguru ditu.

2,16 MILIOI EURO GUTXIAGO FORU ALDUNDITIK

Aurrera begira, gaur egungo egoera ekonomikoak garrantzia handia izango du. Izan ere, COVID-19aren ondorioen artean, udalen sarreraren beherakada aurreikusten da. Bide horretan, maiatzaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalen Finantzaketa Foru Funtsa %20 murriztuko ziela herriei jakinarazi zuen; 2,16 milioi euro gutxiago Azpeitiko kasuan, hain zuzen. "Jaitsiera handia da hori Udal batentzat; bat-batean gauzatu nahi dute gainera. Sarrera gutxiago izango baditugu ere, egoerak ahalbidetzen digun heinean, aurreikusitako proiektuak gauzatu ditugu, udala baduelako gaitasun ekonomiko hori", azpimarratu du.

Bide horretan, Nagore Alkorta alkateak eta beste Gipuzkoako 55 alka-

tek, gutun baten bidez, lau eskaera egin dizkio Foru Aldundiari: Foru Funtsa bueltatzeko onartutako erabakia atzera botatzea; 2020ko udalen aurrekontu aurreikuspenak bere horretan mantentzea; zerga bilketaren jaitsieraren ondorioz Foru Funtsak izandako beherakada itzultzeko hiru urteko epealdia ezartzea datorren urtean hasita eta interesik gabe; eta aldundiak hoge milioiko dirulaguntza bideratzea udalerara COVID-19ak sortutako gailak arintzeko.

HERRITARRAK BABESTEA, LEHENTASUN

Egoera konplikatu da: "Bizi dugun egoerak ondorio zailak izango dituela aurreikusten dugu. Horregatik, lehen unetik egoerara egokitu eta alarma egoerak sortutako behar eta arazoei irtenbidea bilatzeko lanean ari gara etengabe", azaldu du.

"Diru publikoarekin zuhurtziaz jokatzeko dagokigu. Udalaren egoera ekonomiko ona dela eta, pandemiak eragindako ondorioei aurre egiteko baliabideak eskaintzeko aukera eta konpromisoa ditugu", gaineratu du. 2020ko aurrekontuetan ekonomia-aren sustapena eta gizarte babesa ditu Udalak lehentasun gisa, eta pandemiak bi arlo horietako aurreikuspenak mantendu eta indartzea ekarriko du: "Aurtengorako jarritako lehentasunak indartu ditu Koronabirusak. Beraz, bi arlo horiek indartu egingo ditugu, egoerak hori eskatzen duelako eta egoera ekonomikoak hori ahalbidetzen duelako".

Horretaz gain, aurreikusitako proiektu guztiekin, egoerak uzten duen heinean, aurrera jarraitzeko konpromisoa du. Egoera berria abiapuntu gisa hartuta, etorkizunera begira jarri eta Plan Estrategikoa berrikusten hasiko dela Udala ere aurreratu du.

"AURREKONTUETAN EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA GIZARTE BABESA DITU UDALAK LEHENTASUN GISA"



AZOKA HUTSIK EGIN GABE

Alarma egoera ezarri zenean ere Azpeitiko Udalak eta baserritarrek bertako produktuen azokei eustea erabaki zuten. Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez debekatu zituen ere azoka plazan izan ziren ekoizleak. Hasieratik prebentzio neurri guztiak hartuta egin dira azokak: azoka plazaren sartu-irtenak mugatu dira; sartzeko eta irteerako eskuak garbitu behar izan dituzte erosleek; maskarilla eta eskularruak erabiltzen dituzte ekoizleek... Asteak aurrera egin ahala gero eta ekoizle gehiago animatzen dira eta gaur egun azoka plazan eta plazan kokatzen dira baserritarren postuak.



JANARI ETA ARROPA BANAKETA, ELKARLANEAN

Alarma egoerak herritarrengan eragindako kalteen aurrean, beste hainbat neurri eta zerbitzuekin batera, herriko eragileekin elkarlanean janari eta arropa banaketa egin dira apirilean eta maiatzan.

Janari Bankuarekin batera apirilean janari banaketa gehigarri bat egin zen. Maiatzan, berriz, Elkar Ekin taldearekin elkarlanean arropa bankua jarri zen abian.



MASKARILLA BERRERABILGARRI BANA HERRITAR BAKOITZARI

Azpeitiko Udalak norbera eta komunitatea babesteko asmoz 15.000 maskarilla higieniko erosi eta herritarren artean banatu ditu. Maiatzaren 13an hasi ziren, herriko hainbat puntutan jarritako 14 postuetan boluntarioen laguntzari esker banaketa egiten. Lehen egunean 65 urtetik gorakoei banatu zitzairen, eta egun bakar batean ia gehientsuenek hartu zutenez, bigarren egunetik aurrera herritar guztiek izan dute maskarilla hartzeko aukera.



ELKARTASUNEZ COVID-19ARI AURRE EGITEN

Alarma egoeraren hasierako babes eta prebentzio material eskasiari elkartasunez erantzun zion Azpeitiak. Babes materiala behar izan zuten anbulatorioan, San Martin egoitzan, farmazietan eta irekita zeuden dendetan, eta udalera jo zuten horretarako. Glual Group, Biele Group, Sarralle Group, Bizi fisioterapia, Urbitarteko bazar txinatarra, Cortebi enpresak eta Izarraitz Lanbide Heziketari esker beharrezko materiala eskuratu eta banatu ahal izan zen.



IKASTETXEEKIN ELKARLANEAN, ESKOLA BALIABIDEAK BERMATUZ

Udalaren eta ikastetxeen lankidetzari esker eskolak jarraitzeko beharrezkoak diren Interneteko konezioak eta gailuak bermatu zaizkie herriko ikasle guztiei. COVID-19a dela-eta, martxoaren erditik ikasleak etxetik ari dira jarraitzen eskolak. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da ikasleek gailuren bat eta Internetarako sarbidea izatea. Ikastetxeen hainbat baliabideekin eta Udalarekin elkarlanean bermatu da hori.



Martxoaren 15ean alarma egoera ezarri zenetik Udala ondorioak arintzeko neurriak eta zerbitzuak abian jartzen ari da. Herriak eta momentuak eskatzen zuelakoan, Azpeitiko Udala osatzen duten bi alderdiek herrian sortutako behar sozial eta ekonomikoei erantzuteko Sustapen Ekonomikorako Plan Integrala adostu eta onartu dute, aho batez.

**1,7 MILIOI HERRITAR
ETA ERAGILEEN BEHARREN
ERANTZUN SOZIAL
ETA EKONOMIKORAKO**

Asko aldatu da aste gutxian herriko eta herritarren bizitza. COVID-19ak epe oso laburrean ikasle, osasuneko profesional, enpresa eta erakundeei, herritarrei eragin die, besteak beste. Martxoaren hasieran, pandemiaren eragina Europan indarra hartzen hastearekin bat hasi zen Azpeitiko Udala neurriak hartzen. Bide horretan, alarma egoera ezarritako lehen asteetan urgentziak hainbat diru-laguntza berri abian jarri eta ohiko beste hainbat deialdi egokitu zituen. Guztia, herriko eta herritarren behar sozial eta ekonomikoei erantzuteko.

Horrekin batera, pandemiari elkartasunez erantzuteko sare zabala ere osatu da herrian. Udalarekin elkarlanean aritu dira, besteak beste, hainbat ekimenen bueltan 100 herritarretik gora.

KRISIARI ERANTZUTEKO PLAN INTEGRALA

Alarma egoeraren deklarazioaz geroztik Covid-19aren zabalpena gutxitzeko hartutako neurri ezberdinak norbanakoetan zein arlo sozial eta ekonomikoan eragin oso garrantzitsua izan dute. Eragin hori gutxitzeko helburuarekin herrian ekimen publiko nahiz komunitario ezberdinak jarri dira abian. Beti ere, udalaren eskumenen baitan eta gainontzeko Herri Erakunde eta entitateek martxan jarri ditzaketen ekimenen kalterik gabe..

Orain artean, krisiaren lehen asteetan, pertsonak izan dute lehentasuna. Atzean inor ez uztea izan da helburua, eta horretan aritu da Udala; herritarrek entzun, beharrak detektatu eta horiei erantzuneko dien babes sistema integral bat eratzea izanik

misioa. Neurri horien berehalakotasunaren garrantziaren jakitun, alarma egoeraren hasieratik hartu dira neurri zehatz ezberdinak; azkartasuna ez dagoelako zuhurtziarekin borrokan. Horretara bideratu dira udalaren esku zeuden giza baliabide eta ekonomiko guztiak.

Lehen bi hilabeteak, ordea, krisiaren hasiera besterik ez dela jakitun da udala. Pandemiaren aurkako konfinamenduaren deseskalatze faseek aurrera egin ahala errealitate konplexua azaleratuko dela aurreikusten da.

Egoera ez-ohiko eta ezegonkorren aurrean, herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, Udalari ekitea dagokio; baliabideak eta laguntzak hartuz herritarrei ziurtasuna eta segurtasuna eskaintzea. Beti ere tokiko autonomia eta subsidiaritate

printzipioen baitan. Udaren atea da herritarrek beren arazoei erantzuteko jo ohi duten lehen atea eta udalari dagokio beharrei eraginkortasunez erantzutea.

HERRITARREN BIZI KALITATEA MANTENTZEA HELBURU

Herritarrek daude erakundearen politiken erdigunean; herritarren bizi kalitatea da hartutako neurrien oinarri eta helburu. Horrekin batera, ordea, herriko sare sozial eta ekonomikoa sustatu eta indartu beharra ere ezinbestekoa da. Bide horretan, neurri berriak hartuko dira.

Herriko eragile ezberdinekin lehen harremanak egin dira eta aurrera begira ere sare eta eragileekin elkarlanean jarraitzea da helburua, beharrak aztertu eta horiei egokitutako baliabideak jartzeko.

EPE MOTZ ETA ERTAINERAKO BEGIRADA

Osasun larrialdiari erantzutea eta herritarren bizi kalitatean pandemiak eragindako kalteak arintzeko neurriak hartzea izan da lehen pausoa. Hala ere, krisi hori epe motzerako erantzunak emateaz gain, epe ertainerako plana ere beharrezkoa da. Hala, plan integral honetan bi epealdi eta bi helburu nagusiak uztartu dira.

a Berehalako neurriak: Bizitzeko ari garen egoeraren eragina arintzea helburu duten neurriak.

“HERRIKO ERAGILE EZBERDINEKIN LEHEN HARREMANAK EGIN DIRA ETA AUERRERA BEGIRA ERE SARE ETA ERAGILEKIN ELKARLANEAN JARRAITZEA DA HELBURUA”

b Epe ertaineko neurriak: Susper-tze ekonomikoa sostengatzeko neurri ekonomikoak eta herritarrik zaurgarrienak babesteko neurriak eta etorkizunera begira estrategikoak izan daitezkeen neurriak.

Ekimen konkretuak bi ildo nagusitan biltzen dira: etxeko edota norbanakoen egunerokotasunean eragina dutenak eta tokiko ekonomi sarea osatzen duten sektore ekonomiko ezberdinetan eragina izango dutenak. Bi lerrook oinarritzotzat ditu Udalak komunitatearen kohesiorako.

Jarraitu beharreko lan ildo eta estrategia bizia eta dinamiko izango da. Denborak zehaztuko baititu behar eta lehentasunak eta horiei erantzuteko neurri berriak hartu beharko dira. Horrekin batera, udalez gaindiko eremuetan tokiko beharrak asetzeko hartzen dituzten neurriak ere aztertu beharko dira. Beti ere hurbiltasun,

osagarritasun eta bateragarritasun printzipioak aintzat hartuta.

EKITEAREN BEHARRA

Plan integralean une zehatz honetako beharrei erantzuteko ezinbestekoak diren lehen neurrien sorta jasotzen da. Egoeraren urgentziagatik abian jarri beharrekoak, gehiago atzeratu gabe eta beste erakundeen ekimenei itxoin gabe.

Plana osatzerakoan, udaleko teknikari eta eragile ezberdinen ekarpenak izan dira kontuan. Bertan jasotzen diren ekimen batzuk abian jarrita daude dagoeneko, beste batzuk epe laburrean jarriko dira martxan.

AUERRERA BEGIRAKO MARKOA

Neurri horietaz gain ordea, bada aurrera begira udalari kezka sortzen dion beste gai bat. Epe ertainera langabezia tasak izan dezakeen bilakaera – ERTEak gehienez ere ekainaren 30era arte luzatuko dira- eta hartu beharko diren neurriak dira kezka.

Langabetuen kontratazioaren sustapena, herriko gremioak eta beste arloak bizirik mantentzeko ekimenak... asteak aurrera egin ahala sortuko den errealitatearen eta arlo ezberdinen egoerari aurre egin beharko zaio. Eta plan integral hau izango da aurrera begira hartzen diren neurri eta ipintzen diren baliabideen markoa eta sostengua.

“KRISIAREN LEHEN ASTEETAN, PERTSONEK IZAN DUTE LEHENTASUNA; ATZEAN INOR EZ UZTEA IZAN DA HELBURUA, ETA HORRETAN ARITU DA UDALA”



AURREKONTUA

% 41,7	Ekonomia Sustatzeko Laguntzak	500.000€
	• Merkataritza arloan eta lehen sektorean enplegua eta ekonomia sustatzera bideratutako diru-laguntzak.	
	• Industria proiektu estrategiko edo berritzaileen bitartez enplegu sustapena finantzatzera bideratutako diru-laguntzak.	
	• Langabezia dauden pertsonen kontratazioarako laguntzak.	
	• Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko diru-laguntzak.	
% 21,3	Gizarte-bazterkeriako eta behar larriko egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako udal laguntzak	362.000€
% 17,6	Txikizkako komertzio nahiz ostalaritza eta antzeko establezimenduentzako diru-laguntzak	300.000€
% 17,6	Zaintzarako laguntzak	300.000€
% 5,9	Alokairurako diru-laguntzen deialdi orokorra	100.000€
% 4,7	COVID-19 birusak kaltebera ekonomikoan utzi dituen herritarren errenta nahiz mailegu gastuei erantzuteko diru-laguntza deialdia	80.000€
% 3	Tokiko kontsumoa sustatzeko bonoak eta ekimen hau eta antzekoak babesteko komunikazio kanpaina	50.000€
% 3	Etxeko gastuak finantzatu eta aldi berean gremioak mugitzen dituzten jarduerak diruz laguntzea: etxebiziteta energia aurrezteko jarduerak...	40.000€
	Udal zergen ordainketen atzerapena	0€
	Babes publikoko etxebizitzetako maizterrak errenta ordaintzetik salbuestea	0€
	Udal zergen ordainketen atzerapena	0€
KALKULATUTAKO AURREKONTUA, GUZTIRA		1.700.000€



“ELIKAGAIAK ETA FARMAZIA
PRODUKTUAK EROSTEA ETA URA,
GASA EDO ARGINDARRA ORDANTZEKO
LAGUNTZAK ESKAINTZEN DIRA
LERRO HONEN BIDEZ”

OINARRIZKO BEHARRETARAKO LAGUNTZA

Alarma egoerak herritarren artean sortutako behar berriei erantzun azkarra eman asmoz egokitu ditu Azpeitiko Udalak udal laguntzak. Laguntza hau oinarritzko beharrak asetzeko ematen da zehazki

Azpeitiko Udalak 2020ko udal laguntzen deialdia argitaratu du, ekonomikoki egoera zailenetan dauden herritarrak babesteko. Horretarako 362.000€ bideratu dira. Aurtengo deialdia egokitu egin da, COVID-19 gaixotasuna dela-eta sortutako alarma egoerak behar berriak ekarri dituelako. Alarma egoerak irauten duen bitartean izandako diru-sarrerak izango dira kontuan diru-laguntza ebatzerakoan, ikusi delako hainbat herritarren lan-egoera aldatu egin dela martxoaren 15ean alarma egoera ezarri zenetik.

Oinarritzko beharrei erantzuteko bideratuko da. Honako beharrak daude oinarritzko gisa zehaztuta, besteak beste:

- Alokairua ordaintzea.
- Elikagaiak erostea.
- Osasun eta farmazia produktuak eskuratzea.
- Ura, gasa, argindarra eta halako hornikuntzak finantzatzea.

Diru-laguntzaren onuradunak

Nahikoa izango da alarma egoerak irauten duen bitartean diru-laguntzako baldintzak betetzea. Diru-sarrerena da baldintza horietako bat: pertsona baten kasuan eta hila-beteko, ezingo du 1.040,59 euro baino gehiagokoa izan; bi pertsonen kasuan, 1.335,40 euro baino gehiagokoa; eta hiru pertsonen edo

gehiagoren kasuan, 1.478,11 euro baino gehiagokoa. Hala ere, jasotzen diren eskaera eta kasu guztiak banan-banan aztertuko dira.

Lerro horren bitartez, pentsio baxua duten adinekoei ematen zaien 1.080 euro arteko laguntza osagarria ere bideratuko da, baita adin txikikoen eskolaz kanpoko jardueretarako beka ere. Horrekin batera, gizarte larrialdietarako diru-laguntzak aurreratu, eta urteko lehen ordainketak egin ditu Azpeitiko Udalak.

Diru partidaren zenbatekoa:
362.000€
Eskaera egiteko epea:
abenduak 20



ALOKAIRUA EDO MAILEGUA ORDAINTEKO LAGUNTZA

Kontratupean edo autonomo gisa jardun, eta pandemiaren eraginez, apirilean eta maiatzean diru-sarrerak murriztu zaizkien langileei bideratutako diru-laguntza da.

Hainbat familiaren egoera ekonomikoa kaltetu egin da martxoaz geroztiko ez ohiko neurrien ondorioz. Horregatik udalak 80.000 euroko diru-laguntza lerroa jarri du abian, alarma egoeraren ondorioz diru-sarrerak murriztu zaizkien familiei apirilean eta maiatzean alokairua zein mailegua ordaintzen laguntzeko.

Diru-laguntza lerro hau aurrez argitaratutakoak osatzera dator. Deialdi honekin, pobrezia egoeran egon gabe ere, egoera ekonomiko zailean gelditu ziren herritarrak babestea da helburua. Familia horiek hiru baldintza bete behar dituzte kalte ekonomikoak izan dituztela erakusteko:

- Diru-sarreraren murrizketa.
- Alokairua edo mailegua ordaintzera bideratutako batez bestekoa
- Diru-sarrera gordinak

Diru partidaren zenbatekoa:
80.000€
Eskaera aurkezteko epea:
ekainak 15

**“ALARMA EGOERAREN
ONDORIOZ DIRU-SARRERAK
MURRIZTU ZAIZKIEN FAMILIEI
APIRILEAN ETA MAIATZEAN ALOKAIKUA
ZEIN MAILEGUAREN ORDAINKETAN
LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZA
JARRI DU ABIAN UDALAK”**

Ohiko alokairuko diru-laguntza

Ohiko alokairurako diru-laguntza ere eska daiteke jada udaletxean. Orain artean bezala, honako herritarrei bideratuta dago diru-laguntza: 35 urtetik beherakoei, 70 urtetik gorakoei, banandutakoei, alargun gelditutakoei edota urritasunen bat dutenei.

Alokairuaren errentak 550 euro baino gutxiagokoa izan beharko du, eta eskatzailearen diru-sarreraren araberako batez bestekoa lagunduko da diruz. Alde Zaharrean etxebizitza alokairuan hartzen dutenek 50 euroko gehigarria izango dute.

Diru partidaren zenbatekoa:
100.000€
Eskaera aurkezteko epea:
urriak 15

Etxebizitza publikoen alokairu salbuespena

2020ko martxoaren 31ko agindu bidez Erkidego Autonomoko etxebizitza sare publikoan alokairuan bizi diren pertsonak apirila, maiatza eta ekaineko alokairuak ordaintzetik salbuetsiak geratzeko aukera izango dutela jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak, beti ere ezarritako baldintzak betez gero.

Azpeitiko Udala, Azpeitia Berritzetxe bidez, ekimen horretara atxiki da eta Udalak dituen babes publikoko etxetan alokairuan dauden maizterrak ere salbuespen hori gauzatzeko aukera izango dute. Salbuespena gauzatzeko, Azpeitia Berritzetxeekin harremanetan jarri behar dute interesdunek.

Eskaera aurkezteko epea:
maiatzak 31

**“EPE LABURREAN,
ZAINTZARAKO KONTRATAZIOAK
LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZA
LERROA JARRIKO DU
ABIAN UDALAK”**

ZAINTZA ETA MERKATARITZARAKO LAGUNTZAK

Martxoaren 17an emergentziako laguntzak onartu zituen Azpeitiko Udalak Covid-19aren lehen kalte eta arazoei aurre egiteko. Zaintzarako eta establezimendu txikientzako laguntzak izan ziren. Epea bukatuta badago ere, Sustapen planaren bidez bi sektore horientzat beste diru-laguntza lerro batzuk jarri dira.

Martxoaren 14an, alarma egoera ezartzearekin batera herriko denda txiki eta establezimenduek ixteko agindua jaso zuten. Agindu horren eragindako kalte ekonomikoak arintzeko helburuarekin, udalak 600.000€ko urgentziako diru-laguntza onartu zuen.

Alarma egoerak ixtera (osorik edo partzialki) derrigortutako establezimenduei zuzendurikoa izan zen. Martxoaren 17an aurkeztu eta apirilaren 16ra arte izan zen eskaerak egiteko epea. 1.000€koa izan da

gehienez establezimenduak jaso duten zenbatekoa.

Udalaren diru-laguntza lerro honek harrera ona izan du herritarren artean, eta interes handia piztu du; 387 eskaera jaso dira guztira.

Diru-laguntzaren zenbatekoa:
300.000€

Kontziliaziorako laguntza

Martxoaren 13an 6/2020 dekretuaren bidez Lehendakariak hezkuntza zentroen itxiera agindu zuen, eta ordutik etxean dira haur eta gazte txoak. Horren aurrean, urgentziako diru-laguntza tramitatu zen 0-12 urte bitarteko haurren zaintzarako eragozpenak arintzeko laguntzak eta eguneko zentro nahiz beste antzeko

zerbitzuen itxieraren ondorioz menpekotasun duten pertsonen zaintzarako eragozpenak arintzeko.

Martxoaren 23an argitaratu ziren laguntza honen oinarriak eta apirilaren 16a bitartean izan zen eskaerak egiteko aukera. Guztira 15 herritarren eskaerak jaso ziren epe horretan.

Dena den, eta ikusita alarma egoeraren eraginak oraindik ere ez direla amaitu zaintzarako beste lerro bat aterako du epe laburrean udalak, kontratazioak diruz laguntzera bideratuta. Familiako bizitzaren kontziliaziorako laguntza Eusko Jaurlaritzak atera berri du, eta Udalak hori osatzeko kontratazioak laguntzea erabaki du.

Diru-laguntzaren zenbatekoa:
300.000€



EKONOMIA SUSTATZEKO

Industrian eragiteko helburuarekin, merkataritza eta lehen sektorea sustatuz eta ekintzailetasuna bultzatuz aurrera begiratu nahi du Udalak. Horretarako arlo desberdinei bideratutako diru laguntza linea desberdinak jarriko ditu abian.

Ekonomia sustatzeko laguntzek helburu nagusitzat berpizte ekonomikoa dute, enpleguaren sorrera-sustatzuz, eta aldi berean, udalerriko enpresen

lehiakortasuna sendotuz. Programa honen bidez, enpresa berriak merkaturatzea eta lehendik daudenak sendotzea bermatuko duten ekintza-ildoak ezartzen dira; tokiko enplegua sortu eta mantentzea eta genero-berdintasuna nahiz garapen jasangarriarekin lerrokatutako ekonomia bultzatuko duten neurriak martxan jartzea helburu dutenak.

Hori oinarrian izanik eta suspertze ekonomikoa ardatz hartuta Azpeitiko

Udalak, LANBIDE eta gainontzeko erakundeek har ditzaketen neurrien kalterik gabe, eta bere eskumenen baitan, tokiko ekonomia sustatzearen aldeko apustu sendoa egingo du, enpleguaren sorkuntza ekarriko duten ekimen eta jarduerak herriaren onurakoak eta giza interesekoak izanik.

Diru-laguntzaren zenbatekoa:
500.000€

**“TOKIKO ENPLEGUA SORTU
ETA MANTENTZEA ETA GENERO-
BERDINTASUNA NAHIZ GARAPEN
JASANGARRIAREKIN LERROKATUTAKO
EKONOMIA BULTZATU
NAHI DIRA”**

INDUSTRIA PROIEKTU ESTRATEGIKO EDO BERRITZAILAEN BITARTEZ ENPLEGU SUSTATZEKO LAGUNTZA

Azpeitian industria-proiektu estrategiko eta berritzaileak, genero-berdintasunerako neurriak, ingurumen-jasangarritasunaren sustapena, inbertsio proiektuak eta jarduera berriak bideratzea da helburua. Eta nola ez enplegu-sorrera.

Honakoak dira eremu honetan diruz lagunduko diren jarduerak:

1_49 langile edo gutxiagoko enpresetarako industria proiektu estrategikoak eta berritzaileak exekutatu eta garatzea.

2_Instalazioak egokitu eta erosteko inbertsioak egitea, edota ekipamendu tekniko eta teknologikoak erostea, 49 langile edo gutxiagoko enpresentzat.

Diruz lagunduko diren inbertsioak

- Instalazioak egokitu eta erosteko inbertsioak egitea, edota ekipamendu tekniko eta teknologikoak erostea.

- Autokontsumo elektrikorako energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioak egitea

3_Industria jarduera berriak modu finkoan Azpeitian ezartzea

- Enpresak gutxienez 30 langile izan behar ditu.

- Industria jarduera berriak 700.000€ko inbertsioa egin behar du gutxienez.

- Industria jarduera berriak enpleguari eutsi beharko dio edota enplegua sortu beharko du 36 hilabetez gutxienez.

4_Genero berdintasuna bultzatuko duten neurriak ezartzea, berdintasun-planak eginez eta instalazioak egokitzeko inbertsio zehatzak bideratuz.

- Enpresak bere berdintasun plana egin beharko du

- Emakumeentzako instalazioek egokitzeko inbertsioak egitea: aldagelak, bainugelak dituzten aldagelak...

Diru-laguntzaren zenbatekoa:
160.000€

EKINTZAILETASUNA SUSTATZEA HELBURU

Ekintzailetasuna sustatu nahi da lerro honen bidez. Bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzea da helburua.

Baldintza: Enpresa berria sortu duen edo sortuko duen pertsona ekintzaile langabezian egotea enpresa eratzerakoan.

Diru-laguntzaren zenbatekoa:
65.000€



“DIRU-LAGUNTZA LERRO HONEN
HELBURUA DA MERKATARITZAKO
ETA LEHEN SEKTOREKO JARDUERAK
DIRUZ LAGUNTZEA, BI ARLO
HAUEK INDARTZEKO”

MERKATARITZAN ETA LEHEN SEKTOREAN ENPLEGUA SUSTATZEKO LAGUNTZA

Merkataritza arloan eta lehen sektorean bereziki enpleguaren sorrera sustatzera bideratutako diru-laguntzak dira. Era berean, diru-laguntza lerro honen helburua da merkataritzako eta lehen sektoreko jarduerak diruz laguntzea, bi arlo hauek indartzeko azken helburua lortzeko.

Ondorioz, honakoak dira eremu honetan diruz lagunduko diren jarduerak:

a) Langileek kontratatzea

Lehen sektoreari eta merkataritza arloari laguntza berezi bat eman nahi zaio, lana aurkitzeko erraztasuna hobetuko duten neurriak jasoz bai eta langileen lan baldintzen hobekuntzarako, aldi baterako nahiz kontratu mugagabeak lagunduz.

b) Merkataritza arloko lehiakortasuna eta lehen sektorea sustatzeko ekintzak

Diruz lagungarriak izango dira:

- Lehen sektoreko herriko produktuen kontsumoa
- Lokalek edo komertzioek burutzen dituzten jarduerak edo inbertsioak egokitzeko eta behar berrietara moldatzeko (adb; lokalak handitzea, negozio lerro berriak sortzea, erakusleihoak beritzea, etab.)
- COVID-19aren eraginez hartu beharreko prebentzio neurriak ezartzeko egindako gastuei aurre egiteko laguntza

- Web orrien eraketa edota mantenua

c) Lehen sektorea ezarri, eraberritu edo finkatzea

Lehen sektorean enpresak ezarri, eraberritu edo finkatzeko inbertsioak

sustatu nahi dira, honako helburuak lortzeko asmoz:

- Nekazaritza ustiapenen lehiakortasuna eta ingurumen arloko jasangarritasuna hobetzera bideratutako jarduketak bultzatzea.
- Nekazaritza-ustiapenetara nekazari gazteak sartzea bultzatzea.

d) Merkataritzako edo lehen sektoreko jarduerak jartzea

e) Merkataritzako edo lehen sektoreko jarduera berrientzat zuzendutako lokalen alokairuak

f) Azpeitian kokatutako merkataritza establezimenduentzat merkatu azterketak egitea

Diru-laguntzaren zenbatekoa:
175.000€



“LANGABETUAK KONTRATATZEA,
ALDI BATERAKO KONTRATUAK
LUZATZEA EDO MUGAGABE
BIHURTZEA BULTZATZEADA
HELBURUA”

LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK

Krisi honek epe ertainera ekar dezakeen langabezia tasaren igoeraren aurrean, langabeziari aurre egiteko kontratazioak laguntzeko lerro berezi bat jarri du udalak

Planaren aurkezpenean adierazi bezala, batez ere, epe ertainera begira hartu beharko diren neurriek egoeraren diagnostikoa egitea eskatzen dute. Egunerokoan sortu dituen kalteak azkarrago ikus badaitezke ere, datozen aste eta hilabeteetako bilakaerak erakutsiko dute beste eremuetan sortutako eragin edota marrazki erreala-

go bat. ERTEn bilakaera, langabezia tasaren gorakada gordina eta genero, adin nahiz sektoreka aztertu beharko da eremu honetan eraginkorrak izango diren neurriak hartzeko. Agerian da langabetuen kopurua handituko dela eta asmoa da kolektibo hori berriro ere lan-munduan txertatzeko, eta, noski, lan-baldintza duinak bermatzeko saiakera egitea. Eremu honetan arreta berezia eskaini beharko zaio Lanbidek aurreikusita dituen laguntzei. Une honetan, ordea, ez dago langabezian dauden pertsonen kontrataziorako laguntza orokor zehatzik.

Guzti hori oinarrian izanik kontratazio berriak sustatzeko laguntzak bideratuko dira:

- Langabezian dauden pertsonen kontratazioa
- Aldi baterako kontratua amaitu eta kontratua luzatzea
- Aldi baterako kontratua mugagabea bihurtzea

Diru-laguntzaren zenbatekoa:
75.000€

LANGABETUEN FORMAKUNTZA ETA LAN MERKATUAN SARTZEA ERRAZTUKO DUTEN NEURRIAK

Langabetuen prestakuntza eta formakuntza langabetuen eta langileen lan baldintzak hobetzeko erremientarik onenetakoa da. Beraz,

langabetuen formakuntza eta lan merkatuan sartzera erraztuko duten jarduerak lagunduko dira diruz.

Diru-laguntzaren zenbatekoa:
25.000€

**Azpeitiarrok
ELKARTASUNEZ ERANTZUN DIOGU
PANDEMIARI**

**Elkar hartuta begiratu diezaiogun
etorkizunari!**

